

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

TOKIKOM

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016/05/09

1	Izena	TOKIKOM Plataforma
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Komunikazioa
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	info@tokikom.eus jrojas@tokikom.eus
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	http://tokikom.eus twitter.com/toki_kom

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

1	Praktikaren azalpena	Euskarazko toki komunikabideek haien presentzia digitala ziurtatzeko zituzten zailtasunak ikusita, plataforma digital komun bat sortu dugu, tokiko agerkari digitalak sortu eta edukiak, teknologia zein abiada azkarrean aldatzen den teknologiak astintzen duen gure sektorearen etorkizunaren inguruko gogoetak etengabe partekatzekeo tresna gisa. Plataforma horrek, agerkariak erraz sortzeko aukeraz gain, toki komunikabideek bakarka nekez irits zitezkeen teknologiak ere eskuratzeko aukera ematen die, inbertsioak eta garapen bideen inguruko gogoeta partekatuz. Sinergiak aprobetxatzea da oinarri eta helburu.
2	Praktikaren azalpenaren laburpena	Tokian tokiko euskarazko agerkariak sortzeko tresna propio baten garapena, software librean, etengabeko berrikuntza eta eduki, inbertsio zein teknologia mailako saretzea helburu hartuta.

<p>3 Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)</p>	<p>Toki komunikabideek hainbat arazo izan ohi dituzte haien edizio digitaletan puntako teknologia erabili ahal izateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baliabide eskasia eta teknologiaren ezagutza falta • IKTek eskatzen duten etengabeko inbertsioari aurre egiteko finantzazio arazoak • Tokiko euskarazko esparrura egokitutako tresna egoki falta • Dispersioa, atomizazioa, eta ondorioz sinergiak aprobetxatzeko ezintasuna. <p>Horren aurrean, tokiko agerkari digitalak sortzeko tresna komun bat diseinatu genuen, geure beharretatik abiatuta eta etengabeko berrikuntza zein eduki, teknologia eta inbertsio trukea beti gogoan.</p>
<p>4 Helburuak</p>	<p>-Tokiko euskarazko agerkari multimedialak sortzeko tresna garatzea -Agerkari horietan publikoaren parte hartzea errazteko bideak txertatzea, hedabideak komunikabide bihurtzeko. (Pasatu komunitatea informatzetik, komunitatearen komunikazio tresna izatera). -Tresnaren garapena komunikabideen artean adostu eta zuzendu -Tresnaren garapenerako inbertsioak komunikabideen eta TOKIKOMen artean elkar-banatu, baliabideen aprobetxamendua optimizatzeko -Komunikabideen arteko saretze bat probokatzea, eduki eta teknologia trukea erraztuz</p>
<p>5 Eragin esparru nagusia eta albokoak</p>	<p>Bi eragin esparru nagusi izan ditu egitasmoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideak eurak: plataforma ezarri duten komunikabideek haien arteko komunikazioa azkartu dute, eta pixkanaka bada ere, saretze moduko bat lortzen ari garela esan daiteke: errazago konpartitzen dituzte orain kezka, behar komunak identifikatu ditugu, lankidetzan esperientzian oinarrituta proiektu komun berriak sortzeko jarrera hedatzen doa... • Publikoa: komunikabide hauen hartzaileek era aktiboagoan hartzen dute parte agerkarietan, eta trafikoa areagotu egin da agerkari guztietan.
<p>6 Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</p>	<p>Proiektuaren garapen teknikoa CodeSyntaxek egin du, eta azken urtean Vicomtechen laguntza ere izan dugu Aurrera begirako erronkak identifikatzeko.</p>
<p>7 Inplementazio-epea</p>	<p>Plataformaren ezarpena 2013an hasi zen, lau agerkarirekin, eta gaur egun 13 dira martxan daudenak. 13 agerkari horien ordezkariak hilean behin biltzen dira, plataformaren norabide tekniko eta editoriala ezartzen duen 'batzorde teknologikoan'. Gainera, etengabeko komunikazioa ere badago, posta zerrenda baten bidez.</p>

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	13 agerkarik erabiltzen dute gaur egun TOKIKOM Plataforma. Hileko 165.000 erabiltzaile eta 390.000 bisita dituzte guztien artean, eta guztira 950.000 orrialde erakusten dituzte hilean.
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Dirutan, 150.000 euro inguruko inbertsioa egin da plataforman azken 3 urteotan, sistemaren garapena eta eguneratzea, ezarpenak eta eratorritako produktuak kontuan hartuta. Batzorde teknologikoa 15 lagunek osatzen dute, eta noizean behin kanpo aholkularitza ere eskatzen da gai zehatzen inguruan.
10	Lortutako emaitzak	<ul style="list-style-type: none">- Tokikom Plataforma bera garatzea- 13 agerkari sortzea haren gainean- 13 agerkari horien arteko sare eta komunikazio kanal bat irekitzea- Plataforman oinarrituta, mugikorreko aplikazioak sortzeko sistema bat ere garatzea, sinergien planteamendu hori bera bertan errepikatuz.- Publizitate digitala elkarrekin eta batera kudeatzeko sarea eraikitzea
11	Dokumentazioa erreferentziatzko materiala	http://tokikom.eus/zerbitzuak/plataforma-digitala/
12	Aurkezpen bideoa	
13	Intereseko informazio gehigarriak	